

# TAILERRAK EREMU FUNTZIONALETAN:

## AIARA

### 2016/06/15

**Kokalekua:** Katekesia (Amurrio)

**Iraupena:** 3 ordu

### Parte hartzaileak

Izena	Udalerría	Elkarte/Erakunde/... /
Esteban Hernando	Aiala	
Norberto Aldaiturriaga	Laudio	
Juan José Aguirre	Orozko	
Iñigo Mínguez	Amurrio	Asociación forestalista de Alava
Koldo Zabala	Laudio	
Irma Basterra	Aiara	ADR Zabaia
Iraida Saenz de Lafuente	Aiara	Aiara Batuz, Grupo Municipal
Maidier Basterra	Laudio	EAJ-PNV, Grupo Municipal Laudio
Nerea Goti	Aiara	EH-Bildu
Noemi Llorente	Amurrio	Ayto. de Amurrio
Juan Jesús Iturrate	Amurrio	Ayto. de Amurrio
Kontxi Garcia		Baskegur
Amelia Uria	Aiara	Arabako basoguneta elkartea

Izena	Udalerría	Elkarte/Erakunde/... /
Ieltxu Ortueta	Laudio	Eh Bildu Araba
Natxo Urkixo	Laudio	Laudio Udala
Mikel Kormenzana	Orduña	Asoc. Bedarbide
Salvador Velilla	Amurrio	
Txerra Molinuevo	Amurrio	Amurrio Udala
Iñaki Elorriaga	Amurrio	Amurrio Udala
Josune irabien	Amurrio	Amurrio Udala
David Pinedo	Llodio/	Aiara Udala
Maribel Mendibil	Amurrio	
Miren Saratxaga	Amurrio	Amurrio Udala
Karmele Ortiza de Pinedo	Amurrio	
Josu Artetxe Arana	Aiara	EH Bildu Aiara
Idoia Aginako Arabaiza	Urduña	Urduñako alkatea
Arkaitz Quincoces Biguri	Tertanga	Arquitecto

## Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Fernando Uriondo Ispizua	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria
Rafael Sánchez Guerras	Arabako Lurralde Antolakuntzako arduraduna

## Asistentzia teknikoa

Izena	Enpresa
Jon Agirre Such	Paisaje Transversal
Ana Izquierdo	Inguru
Estibaliz Nanclares Medrano	Inguru

## Aurkezpena

Saioa burutuko den gelara iritsi ahala, parte hartzaileei, erregistro orria beraien datuekin betetzeko eskatzen zaie.

Fernando Uriondo Ispizuak, Eusko Jaurlaritzako Ordezkariek eta asistentzia teknikoa aurkezten ditu eta parte hartzaileei bertaratzea eskertu die. Horrez gain, LAGen berrikuspenak 3 urteko iraupena izango duela adierazi du eta administrazio izapidearen mugarri nagusiak (hasiera, aurrekaria, hasierako onarpena eta behin betiko onarpena) hurrengo hiru Euskal Hiria Kongresuekin, urtero azaroan ospatzen denarekin, bat eginaraziko direla azaldu du. Parte hartze prozesuak bi esparru izango ditu, parte hartze soziala eta instituzionala. Prozesu hau, 2015eko azaroan hasi zen. Ordutik, erakunde mailako parte hartzea eta on-line bitartezko gizartearena burutu dira. Aurrez aurreko gizarte-partte hartzea 2016ko martxo eta azaro bitartean garatuko da (tailerren egutegia erakutsi du), hau da, 2016ko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko den LAGen berrikuspenaren aurrerapen dokumentua baino lehen.

Tailerrera proposatutako lan-lerroak ondorengoak izan dira:

1. LAGak eta beraien ondorioak azaldu
2. Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu
3. Tailerraren emaitzak

### LAGak eta beraien ondorioak azaldu

1997an onartutako Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko legeak Euskal Herriko lurralde antolakuntzaren marko juridikoaren oinarria ezartzen du eta lurralde antolakuntzarako bitartekoak definitzen ditu. Horrela, Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) lurralde antolakuntzarako erreferentzia markoa ezartzen dute. Bukatzeko, LAGek lurraldean eta hiri antolakuntzan dituzten ondorioak azaldu ditu Jonek.

### Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu.

Landuko diren 5 gai nagusien azalpenak eman ditu Jonek, baita azpigaien edo paneletan hauetariko bakoitzarentzat adierazten diren azpigalderen zertzelada batzuk ere.

- Paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
  - o Paisaia
  - o Ingurune fisikoaren antolamendua

- Klima aldaketa
- Babestutako Naturguneak
- Korredore ekologikoak
- Azpiegitura berde integratua
- Landa-ingurunea
  - Landa-inguruneko garapen ekonomikoa
  - Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
- Hirigunea
  - Birgaitzea eta Hiri birsorkuntza
  - Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
  - Hiriz hazkundera
  - Metropolialdeak eta transformazio ardatzak
  - Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
  - Mugako herriak
- Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
  - Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
  - Bide-mugikortasuna
  - Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
  - Talde mugikortasun multimodala
  - Eredu logistikoa
  - Ura
  - Energia
- Zeharkako alderdiak
  - Genero ikuspegia, osasuna, euskara
  - Lurraldeen arteko harremana
  - Parte hartzea eta Gobernantza

Tailerrean zehar garatuko diren lan-dinamikak azaldu ditu Anak:

- Talde-lana (75 minutu): Parte hartzaileak taldeka banatuko dira. Talde guztiek gai guztiak (Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; Landa-ingurunea; Hirigunea; Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak;

Gobernantza) landuko dituzte. Gai bakoitza azpigai ezberdinetan banatuta dago. Beraz, talde bakoitzak, lehenengo gai bat aukeratu beharko du, gero gai horretako bi azpigai eta ondoren, proposatzen den galderari erantzuten saiatu beharko da. Landutako ideiak post it-etan idatzi beharko dira (post it bat, ideia bat). Bi azpigai hauek landu ostean, hurrengo gaira pasako dira, zeinetan beste bi azpigai aukeratu eta landu beharko dituzten eta horrela hurrenez hurren.

- Plenarioa (45 minutu). Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du eta bera arduratuko da, gainerako taldeei bere taldean landutako ideiak azaltzeaz. Lehenengo taldeak lehenengo gairako landu dituen gaiak azalduko ditu. Ondoren, bigarren taldeak bere ideiak gehitu ditu eta horrela gainerakoak, talde guztiek, gai horri dagokion beren ideiak azaldu arte. Horren ostean bigarren gaira pasako gara. Talde guztiak gai bat azaltzen lehenak izan daitezen, bigarren taldea hasiko da bigarren gaiko ideiak azaltzen, hirugarrena hirugarren gaikoak...

Gaiak lantzen hasi baino lehen, parte hartzaileek ondorengo ekarpenak egin dituzte:

- Ez diagnostikorik ez eta eredu desarrollista garatzen zuten aurreko LAGen ebaluaziorik ez dagoela adierazi da. Herritarrek ekarpenak egin ditzaketen arren, hauei ez dagokie diagnostikoa egitea. Eusko Jaurlaritzak diagnostikoa eginda badauka, ez dago eskuragarri.
- LAG berriak egiten hasteko, aurrekoen ebaluazioa falta da.
- 15 urte behar izan dira Nekazaritza eta basozaintzako LPSa egiteko, baina hau adibide bat baino ez da. Lurraldean, oraindik, gai asko zehazteko daude, meatzaritza edo frackinga esaterako. Horrela, LPS batean zehaztu ez diren ekarpen garrantzitsuak egon dira energiaren alorrean.

## Tailerraren emaitzak.

Ondoren, tailerraren emaitzak azaltzen dira:

### 1. Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea:

#### 1.1. Paisaia

1.1.1. Paisaia ez da museo bat. Paisaia eredia lehen sektorearen ereduarekin lotuta dago

1.1.2. Lehen sektorearen jarduera mantendu eta indartu modu jasangarri eta orekatuan. Lehen sektorerik gabe, paisaia degradatzen da.

1.1.3. Ibaiertzen balio nabarmendu eta berreskuratu, batez ere Nerbioi ibaiarenak.

1.1.4. Degradatutako eremu industrialak beste erabilera batzuetara birmoldatu

#### 1.2. Babestutako naturguneak

1.2.1. Tokiko erakundeen parte hartzea beharrezko da gune hauen kudeaketarako. Izan ere, badirudi goitik egiten dela, Junta, udaletxe, tokiko erakunde... inplikazioa gabe.

#### 1.3. Ingurune fisikoaren antolamendua

1.3.1. LPS batzuk garatzea falta da eta eginda daudenen garapena hobetu behar da. Beharrezkoa da, berrazterketa sakon bat egitea eta lurraldearen zerbitzura egotea, ez interes jakin batzuenetara.

### 1.3.2. Lurzoru ez urbanizagarriaren erregulazio hobea

1.3.3. Ezin da lurzoru urbanizagarri gehiago okupatu. Har daitezkeen neurriak: baserriak zatitu, nekazari- eta baso-sektoreei lotutako jarduerak sustatu, interes orokor gisa sailkatutako jarduerak mugatu, berotegiak biltegi gisa erabili, baserri kalifikazioa daukatenean hau handitzeko aukerak izatea, ez erraztu nekazaritza ustiapentara lotutako finkatze berririk.

1.3.4. Lehen sektorekoak ez diren, baina ingurunea errespetatzen duten, jarduera berriak ezartzeko aukera zabaldu, adibidez hipika

1.3.5. Jarduera ekonomikoaren ingurumen edo jasangarritasun kudeaketa sistemen ezarpena sustatu. Adibidez ISO 14001, PFC,...

1.3.6. Jardueren erregulazioa lurzoru ez urbanizagarrian, lurzoru mota hauetan egingarriak diren jardueretan zentratuz. HAPOetan ez urbanizagarria antolatzearen garrantzia.

1.3.7. LAGek figura indartsuagoa izan beharko lukete, gomendioen mailan gertu baitira. Nekazari-balio altuko lurzoruen babeserako neurriak eman beharko lituzkete eta hauek, LAGen erabilera matrizean txertatu.

## 1.4. Korredore ekologikoak

1.4.1. Gorbeia eta Galdames artean doan korredore ekologikoaren jarraikortasuna zalantzan jartzen da. Bereziki, Laudio eta Okondo artean.

1.4.2. Zergatik ez dira korredore ekologikoak KBEetan txertatu?

## 1.5. Orokorra

1.5.1. Nerbioi ibaia: uholde-arriskuen arazoak, saneamendu-sare falta eta bere eragina planteamendu urbanistikoan

## 2. Landa-ingurunea

### 2.1. Landa-inguruneko garapen ekonomikoa

2.1.1. Belaunaldi-txandakatzerako erraztasunak eman

2.1.2. Nekazari- eta abeltzaintza-ustiapentzat eredu estentsiboa

2.1.3. Ekoizle eta kontsumitzaileentzako formakuntza

2.1.4. Lurralde desoreka. Eremu batzuk oso hiritarrak dira eta beste batzuk oso landatarrak

2.1.5. Aiarako LPPak ez ditu gauza asko zehazten eta ez du lan-ingurunean eragiten.

2.1.6. Lurraldearen kudeatzaileak, paisaia dagoen bezala mantentzen dutenak, nekazari eta abeltzainak dira eta hau mantendu beharreko aspektu bat da.

2.1.7. Lehen sektorekoak ez diren, baina lurraldea errespetatzen duten beste jarduera batzuk ezartzeko aukera zabaldu.

- 2.1.8. Produkzio-ereduaren politikek gaur egungo abandonu egoerara eraman gaituzte, beharrezkoa da politika hauek aldatzea.
  - 2.1.9. Arazoa, nekazaritza sektore ekonomiko garrantzitsu bezala ez dela kontsideratzen da. Ondorioz ez da sustatzen eta bertan behera usten da, sektore ekonomikoa izateaz gain, lurraldearen kudeatzailea denean.
  - 2.1.10. Nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-eredu ez hain intentsiboentzat erraztasun eta erremintak eman, paisaia eta populazioa mantentzeko.
  - 2.1.11. Nekazari-ustiapenetan belaunaldi-txandakatzea errazteko erremintak eman.
  - 2.1.12. Nola mantendu baserri-nukleoak? Horretarako formulak bilatu behar dira, ez soilik jarduera ekonomiko ikuspuntutik, baita bizigarritasunetik (nola erraztu beraietan bizitzen jarraitzea): baserriak zatitu, laguntzak zehaztu...
  - 2.1.13. Populazioa mantendu, lehen sektorearen jarduera mantentzeari lotuta dago.
  - 2.1.14. Landa-ingurunean bizi direnek egiten duten landa-ingurunearen mantentzea balioztatu eta aintzatetsi: mozketak, bidexkak, errota zaharrak berreskuratu...
  - 2.1.15. Ustiapenen eskualdaketa. Ustiapenak epe labur edo ertainera eskualdatuak izan daitezkeen neurtu behar da eta horren arabera arautu. Kasu batzuetan, ustiapenak hasten jarraitu nahi dute, baina ez da aztertzen ea inork mantendu ahal izango dituen etorkizunean. Ondorioz, bertan behera geratu diren lur zail handiak ikus ditzakegu epe motzean. Nekazari-jardueren inguruan arautzeko, eskualdatze adierazlea txertatu behar da.
- 2.2. Landa-inguruneke antolamendu fisikoa
    - 2.2.1. LAGek eskualde naturalak hartu behar dituzte eremu funtzional gisa eta ez banaketa administratiboak. Bi lurralde historiko izaterakoan, gauza askoren kudeaketa zailtzen da, politikak ezberdinak baitira.
- 2.3. Orokorra
    - 2.3.1. Eremu funtzionalaren arazo handi bat landa-ingurunearen despopulazioa da.
    - 2.3.2. Sektore honetan dagoen pertsona kopurura txikia den arren, lurraldearen zatirik handiena kudeatzen dutenak dira.
3. Hirigunea.
    - 3.1. Birgaitzea eta birsorkuntza
      - 3.1.1. Hiriguneak birtrinkotu eta birgaitu
      - 3.1.2. Landa-nukleo kontzeptua mantendu eta hiritarrak izan ohi diren eruedetan kontutan izan.
      - 3.1.3. Birgaikuntzarako zailtasun ekonomikoak konpontzeko programa publikoak edo lankidetzak publiko-privatuak jarri maila ekonomikoan. Birgaikuntza integraletarako jarraitu beharreko irizpideak ezarri beharko lituzkete erakunde publikoek.

3.1.4. Hazkunde berriak mugatu

3.1.5. Eredua trinkoagoa, espazioa okupatzen ez duena.

3.1.6. Berria okupatu baino lehen, bertan behera geratu den lurzoru industrialara erabili eta lurzoru berriaren okupazioa asko mugatu.

3.1.7. Lurzoru kutsatuak diru publikoarekin edo laguntzen bitartez berreskuratu, sustatzaileen eskutan utzi ordez.

3.1.8. Eraikita dagoenean birsorkuntza, irisgarritasuna eta birgaikuntza bultzatu, eraikitzen hasita dagoenean eraginez.

### 3.2. Jarduera ekonomikoa eta lurraldea

3.2.1. Industria politika LAGetan garatu behar da, eskualde ikuspuntutik eta ez soilik hiriburuetan zentratuz. Izan ere, eremu industrialetarako mantxak soilik hiriburuaren inguruetan jartzen dira eta uste dugu, eremu funtzional honetan behintzat, bere garapenerako elementu garrantzitsu bat dela.

3.2.2. Jarduera ekonomikoaren garapena bermatu eskuragarri dauden lurretan. Hauek betetakoan soilik okupatu beharko litzateke lurzoru berria.

3.2.3. Industriaren espezializaziorako kolaborazioa publiko-pribatuak sustatu. Eremu honetan egoera zailean dauden enpresak daude eta hauek berrasmaturik gero, ziurrena, aurrera egingo lukete.

3.2.4. Lurralde jasangarriago baten markoan, industria teknologiko eta berritzailearen garapena sustatu.

### 3.3. Egoitza kuantifikazioa

3.3.1. Proposamena: hazkundera mugatu edo ez hazi

3.3.2. Ez artifizializatu lur gehiago, nahiz eta arazoak konpondu ahal izateko lurzoru berri erreserba txiki bat izatea beharrezkoa den.

3.3.3. Hiriguneen kargak lurraldean nola banatzen diren hausnartu

3.3.4. Ez litzateke gutxieneko eraikuntza kopururik jarri beharko udalerriko

3.3.5. Egoitza kuantifikazioan etxebizitza hutsak kontutan izatea positiboki baloratzen da, nahiz eta hau testigantza hutsa izan.

### 3.4. Mugako herriak

3.4.1. Udalerrri ezberdinen artean planeamendua batera egin behar da. LAG eta LPP izanda, eredu eraginkorragoak eta elkarlanekoagoak izan beharko genituzke.

3.4.2. Hiriguneetako dentsitate urbanistikoa. Estandar handiagoak jarri.

### 3.5. Orokorra

3.5.1. Ez dugu kanpoan lan egiten dutenean lotegia izan nahi, hemen lan eta bizi nahi dugu.

3.5.2. Laudioko arazo urbanistikoak konpondu. Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak



#### 4. Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak

##### 4.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

4.1.1. Nerbioiko parke lineala garatu behin betikoz. Amurriotik aurrera garatu behar da.

4.1.2. Txirrindularien segurtasuna bermatu. Kotxe eta kamioiekin espazioa konpartitzeak beraien aisia zailtzen du.

4.1.3. Herrien arteko bideak berreskuratu eta mantendu. Aira bezalako eremu barreiatuetan auzoen arteko herri izaera berreskuratzeke filosofia berreskuratuz.

##### 4.2. Talde mugikortasun multimodala

4.2.1. Txartel bakarra eta arrazoizko prezioan

4.2.2. Txartel hauen erabilera erraztu, izan ere, batzuetan, batez ere adineko pertsonei, sistema hauek gainezka egiten die.

##### 4.3. Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna

4.3.1. Hain erradio txikian hainbeste aireportu egitea beharrezkoa da?

4.3.2. Trenbide sarea eremuko errealitatera egokitu: maiztasuna, irisgarritasuna...

4.3.3. Portu eta aireportuen azpiegitura gehiegizkoa da

4.3.4. Aireportu-azpiegiturak espezializazioa eta berplanifikazioa behar dute.

4.3.5. Hurbileko trenbide komunikazioak hobetu eta (ekologiko, ekonomikoa eta mugikortasun) sentu gabeko AHTaren proiektua alboratu.

4.3.6. AHTa ez da beharrezko inbertsioa, aldiriko trenbide zerbitzua da garrantzitsuena eta hor inbertitu beharko litzateke.

##### 4.4. Orokorra

4.4.1. Behingoz, Amurrio eta Urduña arteko lotura eraiki.

4.4.2. Audio-Amurrio errepidea bikoiztea benetan beharrezkoa den aztertu.

##### 4.5. Energia

4.5.1. Ekoizpenerako instalazioa handien ordeztu, txikiak sustatu, minihidraulikak, eguzki-plakak...

4.5.2. Energiaren sareko erredua, energia ekoizteko foko askorekin...

4.5.3. Minieolika, eguzki-plakak, landa-guneak...

4.5.4. Energia ekoizpenerako eremu handiak ez

4.5.5. Sare adimendun eta erresilentea

#### 4.6. Ura

- 4.6.1. Landa-guneetako uraren kudeaketa: saneamendu eta arazketarako ekimen txikiak sustatu, instalazioa txikiei erraztasunak emanez.
- 4.6.2. Ura, energia, hondakinak... eremu funtzional bat eta bi probintzia. Eskualdeak bi eredu ditu, gainera, askotan kontrajarriak
- 4.6.3. Uraren zikloaren planifikazio integrala eskualde ikuspegitik.

#### 5. Zeharkako alderdiak: Generoa, osasuna, euskara, lurraldeen arteko harremana eta parte hartzea

##### 5.1. Genero ikuspegia, osasuna eta euskara

- 5.1.1. Eskualdean, medikuntza espezializazioentzako kokapena garatu
- 5.1.2. Euskararen egoeraren diagnostikoa: kontzeptu akats bat dago. Elebitasuna planteatzen da, baina euskararen gabezia nabarmena da eta hau bultzatu beharko litzateke.

##### 5.2. Parte hartzea eta gobernantza

- 5.2.1. Aurreko LAGen eta lurralde ereduaren berrikuspen kritikoa behar da. LAG eta lurralde eredu berri baterantz joateko.
- 5.2.2. LAG, LPP eta LPSen jarraipen eta kontrolerako plataformak eratu eskualdeka

##### 5.3. Orokorra

- 5.3.1. Lurralde historikoen gaineratik eremu funtzionalak landu, eskualdeko kontzeptutik haratago joanez
- 5.3.2. COPU eta lurralde politika organismoen erreforma, aspektu sozialak jaso ditzaten eta teknikoak bakarrik izan ez daitezen
- 5.3.3. Plangintzen, LAG, LPP edo LPSen, onarpen tramitazioa bizkortu eta erraztu.